

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa honen arrakasta lortzeko, beharrezkoa da planifikazio egokia edukitzea eta nork bere harri-koxkorra ekartzea, hau da, bakoitzaren abileziak eta jakinduriarekin lana egitea da funtsezkoa. Horrez gain, kritikoak izatea bata bestearekin oso garrantzitsua dela uste dugu.

Nahia diseinuan trebezia du eta gustoko du, ondorioz produktuaren diseinuataz bera arduratuko da. Gainera, produkzioa, Aimar Tome eta Aimar Arranzen artean egingo dute, horrela elkarri lagunduko diote eta ondo doala baieztatuko dute inoiz arazorik ez egoteko.



Aimar Tomeri dirua eta ekonomia gustatzen zaizkio, beraz erabaki dugu bera izango dela enpresaren kontuak maneiatuko dituen. Enpresako kostuak eta irabaziak aztertuko ditu. Honez gain, gure konfiantza osoa du negozioaren ekonomia arloa eramateko.



Aimar Arranzenek marketina eramango du, izan ere, produktuak saltzea bere abilezia da. Beti izan du produktuak saltzeko eta jendea erakartzeko erraztasuna, hori dela eta aprobetxatu egingo dugu gure enpresaren onurarako. Jendea erakarriko du eta produktuak saltzen saiatuko da, bere trebetasuna baita. Gainera, betidanik, bai lagunekin, bai familiarekin, kontaktuan egotea gustatzen zaionez, bezeroekin

berdin egongo delakoan gaude, beraiekin harremanetan eta beraiengatik kezkatzen, dena ondo doakiela ziurtatzeko

Bestalde, furgonetaren gidariak guztiok izango gara guztiok dugulako intentzioa kotxeko agiria lortzeko datorren urtean eta asko bidaiatu dugulako bai Euskal Herritik, bai Espainiatik.

Webgunea sortzeko Nahiak egingo du eta gainera ingeniarietza informatikoa ikasten ari den lagun bati laguntza eskatuko diogu izan ere, berekin hitz egin ostean lagun arteko prezioan sortuko duela webgunea baieztatu digu.

El Diario Vasco aldizkarian iragarkiak jartzea gomendatu digute eta aditu batzuei galdetu eta gero, gure salmentak %15ean igoko zirela esan digute. Hau dela eta hau probatuko dugu: hilabete oso batean astero egun batean iragarki bat jarriko

dugu. Honek arrakasta badu, iragarkiak jartzen jarraituko dugu. Gainera, sare sozialetan aktiboki jardungo dugu, beti eguneratua dagoen informazioa igoz eta bezeroen zalantzak argituz.

Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu iragarkiak txertatzea sare sozialetan, jende askok irakurtzen dutelako. Honek aurrera segi dezan kostu bat izaten du eta hau ordaintzea egokiena izan daiteke beharrezkoa baita.

